CONSEJO DE RELACIONES
LABORALES
LAN HARREMANEN
KONTSEILUA
29/10/2021 12:17
IRTEERA 7.192 SALIDA

LAN HARREMANEN KONTSEILUA
CONSEJO DE RELACIONES LABORALES

*Egun on lankideok,*

*Ikusita kutsatzeen intzidentziak behera egiten zuela eta txertaketa oso aurreratua zegoela, urriaren 7an EHAAn argitaratu zen eta indarrean jarri zen Lehendakariaren urriaren 6ko 39/2021 Dekretua. Dekretu horrek COVID-19 pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdiaren amaiera deklaratu zuen, eta irailaren 17ko 38/2021 Dekretuan aurreikusitako neurri guztien ondorioak berehala indargabetu ziren. Horrenbestez, kendu egin dira orain arte ezarrita zeuden murrizketa, debeku edo muga guztiak. Bestalde, Osasun sailburuak, Euskadiko osasun-agintaritza den aldetik, data berean Agindu bat onartu zuen, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak ezartzen dituena.*

*Horrenbestez, beharrezkoa da 2020ko martxoan alarma-egoera deklaratu zenetik gaur egun arte Lan Harremanen Kontseiluan ezarritako prebentzio-irizpideak berrikustea. Bada, erakundearen hiru egoitzetan hartu beharreko neurrien helburua izango da aurrez aurreko jardueran segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatzea, bai bertaratzen direnentzat, bai LHK-ko langileentzat.*

*Hala ere, neurri horiek modu dinamikoan hartuko dira eta noiznahi eguneratu ahal izango dira osasun-arloko agintariek ezartzen dituzten jarraibideen arabera.*

Buenos días compañeras/os,

Vista la situación de disminución de la incidencia de contagios y la cobertura de vacunación alcanzada, el día 7 de octubre se publicó en el BOPV y comenzó a surtir efectos el Decreto 39/2021, de 6 de octubre, del Lehendakari que declaró la finalización de la situación de emergencia sanitaria derivada de la pandemia de COVID-19 y decretó la pérdida inmediata de efectos de todas las medidas previstas en el Decreto 38/2021, de 17 de septiembre. En consecuencia, han quedado suprimidas todas las restricciones, prohibiciones o limitaciones que estuvieran establecidas hasta la fecha. Por su parte, la Consejera de Salud, como autoridad sanitaria de Euskadi, aprobó una Orden de la misma fecha dictaminando las medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19 en la nueva normalidad.

En consecuencia, resulta necesario revisar los criterios de prevención que se han ido establecido en el Consejo de Relaciones Laborales desde la declaración del estado de alarma en el mes de marzo de 2020 hasta la actualidad. Las medidas a adoptar en las tres sedes del organismo tienen por objeto garantizar el desarrollo de la actividad presencial en condiciones de seguridad y salud, tanto para los/as asistentes como para las personas trabajadoras del CRL.

No obstante, estas medidas tendrán un carácter dinámico y se podrán actualizar en todo momento conforme a las directrices que vayan estableciendo las autoridades sanitarias.

*Neurri orokorrak eta prebentziokoak:*

- *Maskararen erabilera nahitaezkoa da Kontseiluan egiten diren bileretan parte hartzen duten guztientzat, bai eta kanpotik hiru egoitzetara bileraren batera datozen pertsona guztientzat ere, non eta ez den adierazten martxoaren 29ko 2/2021 Legearen 6. artikuluan aipatzen diren ez-exijitzeko legezko arrazoietako bat.*
- *Kontseiluaren bulegoetara sartzen diren pertsona guztiek bi eskuak garbitu behar dituzte, bulegoen sarreran izango duten soluzio hidro-alkoholikoarekin.*
- *Oro har, gelak erabiltzean, ahalegina egingo da pertsonen arteko distantzia 1,2 metro ingurukoa izan dadin. Beraz, baimendutako gehieneko edukiera berriz ere ohikoa izango da, baina ezin izango dira inola ere erabili geletan eskura egon litezkeen aulki gehigarriak edukiera handitzeko. Bada, baimendutako gehieneko edukiera hau izango da:*

**Medidas generales y de prevención:**

- El uso de la mascarilla es obligatorio para todos los participantes en las reuniones que se celebren en el Consejo, así como para todas las personas asistentes a las dependencias de las tres sedes, salvo que alegue alguna de las causas legales de no exigibilidad previstas en el art. 6 de le Ley 2/2021, de 29 de marzo.
- Todas las personas que accedan a las dependencias del Consejo deben lavarse ambas manos con la solución hidro-alcohólico que existirá a su disposición a la entrada de las dependencias.
- Con carácter general, en el uso de las salas se procurará mantener una distancia interpersonal de 1,2 metros, aproximadamente. En consecuencia, el aforo máximo permitido será el ordinario y habitual sin que, en ningún supuesto, se puedan utilizar las sillas adicionales que puedan estar disponibles en las dependencias para aumentar dicho aforo. Por ello, el aforo máximo permitido será el siguiente:

| BIZKAIA | ÁLAVA | GIPUZKOA |
|---|---|---|
| 26 | 22 | 18 |
| 18 | 12 | 14 |
| 10 | 10 | 14 |

- *Bilera bakoitza bukatutakoan, geletako airea berrituko da. Posible baldin bada (Araban eta Gipuzkoan) modu naturalean aireztatuko da, eta leihoak irekiko dira gutxienez 15 minutuz gela berriro erabili baino lehen.*
- *Ez da beharrezkoa izango gelak garbitzea segidan ospatzen diren bi bileraren artean.*

- Al finalizar cada una de las reuniones se renovará el aire de las salas. Siempre que sea posible (en Álava y Gipuzkoa) se ventilará de forma natural, abriendo las ventanas durante, al menos 15 minutos antes de volver a utilizar de nuevo la sala.
- No será necesaria la limpieza de las salas entre la celebración de dos reuniones.

**Neurriak antolaketan:**

*Aurrez aipatu diren neurriekin bat:*

- *Akta-idazkariek Kontseiluan biltzen diren negoziazio-batzordeei eta batzorde paritarioei emango diete edukiera-mugen malgutzearen berri, baina bilerak modu telematikoan eta modu erdipresentzialean egiteko aukera eskaintzen jarraituko dute.*

- *PRECOren esparruan, aurrez aurreko saioak lehenetsiko dira, baina betiere eskatzaileei galdetuko zaie ea zer nahiago duten. Horretarako, eskatzaile bakoitzari galdetuko zaio zer lehentasun duen. Hasierako saioaren deialdian modu presentzialaren alde egiten bada, gelen edukiera-mugak osasun-pandemia deitu baino lehenagokoak direnez, ohiko eran jokatuko da. Aitzitik, bilera modu birtualean egitea erabakitzen bada, Sambalive plataforma erabiliko da, edo haren ordez etorkizunean aukeratzen dena, suertatzen diren bilera guztiak ospatzeko.*

- *Bestalde, lehen adiskidetze-saioa modu birtualean egiteko deialdia bidalita, aldeetako batek (ez-eskatzaileak, Langileen Legezko Ordezkaritzak, etab.) eskatzen baldin badu bilera aurrez aurrekoa izatea, normalean alde ez-eskatzaileak bilera bat atzeratzea eskatzen duenean bezala jokatuko da; hau da, esango zaio alde eskatzailearekin harremanetan jar dadin zuzenean haien nahia adierazteko.*

- *Aurreko ataletan aipatutakoaren kontra egin gabe, hiru egoitzetako lurralde-arduradunek eta lan-harremanetako teknikariek beti izango dute aukera Preco prozedura beste era batera garatzeko, inguruabar espezifikoren batengatik*

**Medidas organizativas:**

En consecuencia con las medidas anteriores:

- Las/os secretarios/as de actas informarán a las comisiones negociadoras y paritarias que se reúnen en el Consejo sobre la flexibilización de las limitaciones de aforo, pero se continuarán ofreciendo la posibilidad de celebrar reuniones de manera telemática y semipresencial.

- En el ámbito del PRECO se comenzará a priorizar la celebración de los encuentros de manera presencial para lo cual se preguntará a cada solicitante sobre su preferencia al respecto. Si optara por la convocatoria del encuentro inicial de manera presencial, dado que el aforo de las salas es el que existía antes de la declaración de la pandemia sanitaria, se procederá de la misma manera. Por el contrario, si eligiera la celebración del encuentro de manera virtual, se utilizará la plataforma Sambalive, o la que en el futuro la pudiera sustituir, para la celebración de todas las reuniones que resulten necesarias.

- En el supuesto de que, remitida la convocatoria para la celebración del encuentro de conciliación inicial virtual, alguna de las partes (no solicitante, RLTs, etc.) solicitara que la reunión se celebre de manera presencial, se procederá de la misma manera que se viene actuando cuando se solicita el aplazamiento de una reunión por la/s parte/s no solicitante/s, es decir, instándole a contactar con la parte solicitante para trasladarle esa petición.

- Sin perjuicio de lo establecido en los apartados anteriores, los responsables territoriales de las tres sedes y el personal técnico en relaciones laborales continuarán disponiendo de un margen de libre apreciación para valorar cualquier otra circunstancia específica del

*egokiagoa dela iritziz gero, eta ez diote nahitaez alde eskatzaileari kontsultatu beharko.*

procedimiento Preco que aconseje su desarrollo de una u otra forma, sin necesidad de consultar a la parte solicitante.

*Adeitasunez.*

Saludos cordiales.

*Bilbon, 2021eko urriaren 29an.*

En Bilbao a 29 de octubre de 2021.

LAN HARREMANEN KONTSEILUA CONSEJO DE RELACIONES LABORALES

**IZPTA./FDO.: Yolanda Zarandona Gutiérrez**
**Idazkari nagusia / Secretaria general**
**Lan Harremanen Kontseilua / Consejo de Relaciones Laborales**